

Bilbobusek Irizarren autobus % 100 elektrikoa izango du bere autobusen artean bi astez

Gaurtik apirilaren 25era bitartean 16 lineatan ibiliko da hiri guztian zehar

Bilboko hiri autobusen zerbitzuak, Bilbobusek, autobus berria izango du gaurtik aurrera. Bi astez Irizarren autobus % 100 elektrikoa bat gehiago izango da egunero hiriarri zerbitzua ematen dioten gainerako ibilgailuen artean. Gaurtik apirilaren 25era bitartean 16 lineatan ibiliko da hiri guztian zehar, zerbitzua indartuz.

Data	Linea
2016/04/10	03
2016/04/11	13
2016/04/12	18
2016/04/13	27
2016/04/14	30
2016/04/15	38
2016/04/16	48
2016/04/17	56
2016/04/18	58
2016/04/19	71
2016/04/20	72
2016/04/21	75
2016/04/22	76
2016/04/23	77
2016/04/24	85
2016/04/25	01



Gaur goizean aurkeztu dute autobusa Bilbon eta han izan dira, besteak beste, Alfonso Gil Zirkulazio, garraio eta ingurumen zinegotzia eta Hector Olabe, Irizarko elektromugikortasun arduraduna.

Alfonso Gilek adierazi du autobusak zerbitzua baldintza errealetan emango duela datozen asteetan Bilbok dituen ezaugarri orografiko berezi guztiekin. Gogorarazi du, era berean, ekimen hau “Udalak ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin duen konpromisoaren erakusgarri dela eta garraioak ingurumenean duen inpaktua gutxitu eta aukera jasangarriagoak bilatzeko ahaleginaren emaitza”.

Irizar i2e Irizar Taldearen teknologiarekin garatutako lehen hiri autobus integrala da.

Dagoeneko badabil Donostian, Bartzelonan, Londresen eta Marseillan eta Bilboren aurretik beste zenbait hiritan ere probatu dute, hala nola, Parisen, Madrilen, Zaragozan eta Iruñean. Irizar i2e 200 eta 250 km arteko autonomia eskaintzeko diseinatu da, egunaren amaieran karga bakar bat eginez. 7 orduko kargarekin 14 eta 16 ordu bitartean gidatu daiteke.

Iraunkortasunari buruzko berrikuntza

Europar Batasuneko biztanleen %60 hirietan bizi direlarik, kutsadura desagertzea da hiriguneen erronka handienetakoa. Errekuntzako ibilgailuen zirkulazioa CO2 isurketen %40ren eta gainerako kutsatzaileen %70en erantzulea da. Autobus elektriko bakoitzeko CO2 igorpenak 318,28 tonatan murrizten dira, eta 33.000 litro erregai aurrezten dira.

Kutsadura akustikoa gero eta handiagoa da eta, egun, inoiz baino gehiago, garraiobide eraginkorrak, ekologikoak eta isilak behar ditugu; ingurumenarekin atsegin eta errespetuz jokatu dutenak, eta hirietako pertsonen bizitza kalitatea hobetzen lagunduko dutenak. i2e Taldeak mugikortasun iraunkorraren alde egiten duen apustuaren fruitua da, eta hiri mugikortasuneko liderra izateko asmoarekin iritsi da, hirietan iraunkortasunaren eta ingurumenaren hobekuntzaren alde laguntzeko konpromiso irmoarekin.



Taldearen iritziz, hiriak ez kutsatzeko erabakiak ezin du atzera bueltarik izan eta, hori dela eta, orain dela lau urte erabaki zen hiri autobusen eremuan zuzenean zero igorpeneko autobus elektrikoekin sartzea.

Beste ezaugarrietako bat osagaiak birziklatzeko aukera da. Ecodesignen printzipioak barneratuz garatu da, autobusaren diseinuan ingurumen irizpideak ezarriz. Sartu diren bateriak ere %99 birziklagarriak dira.

Errentagarritasun ezin hobea

Irizar i2e-k errentagarritasunik onena eskaintzen du, bere kontsumo elektrikoagatik, teknologia energetikorik berritzaileenak barneratu baititu. 230 kW-eko potentzia nominalarekin, ibilgailuan ontziratutako energia 376 kWh da, eta horrek 200/250 km-ko autonomia ematen dio, gidaritza zikloaren eta baldintza klimatologikoen arabera. Irizar i2e-aren bateriak % 99 birziklagarriak dira. Autobusaren diseinuan pisuen banaketa ere kontuan hartu da, baita osagaien irisgarritasuna ere, mantentze lanak errazteko.